

bilbao museoa

BBKateak **Isozaki –** **Schlosser**

Arte Ederren Bilboko Museoa
Museo de Bellas Artes de Bilbao

bbk 

Isozaki – Schlosser

15. aretoa

Eraikin zaharra


Lehen solairua

Eraikitzeko, marraztu

Arkitektura-marraskia ideien eta eraikuntzaren munduen arteko bitartekaria da. Horren erakusgarri da orri handi hau, zeinean Montserrat Ribasek leuntasun zehatzez eutsi dion Arata Isozakiren maisulanetako baten *utilitas* delakoari. Adolfo Schlosserrekin ere saiakerak egin zituen tintaren aurretiazko trazuan, eskultura arin honen egiturazko tentsioa antolatzeko. Bertan, metakrilatozko gurutzez osatutako bastidore batean, zehaztasun geometrikoz jotzen ditu erritmo kaleidoskopikoz hedatzen diren formak.

1

Eraikin zaharra Lehen solairua




Arata Isozaki

1931-2022

Nerabe zela Hiroshimaren suntsiketaren lekuko izan zen, handik gertu jaio baitzen, Ōitan, Kyūshū uhartean. Esperientzia horrek arkitekturari buruzko bere ikuspegia markatu zuen, bonba nuklearrak sortutako hutsunetik eta jendeak etxeak eta hiriak nola berreraikiko zituen zalantzan jartzetik sortua. 1954an Tokioko Unibertsitatean graduatu zen. 1963an bere bulegoa ezarri aurretik, arkitektura modernoaren maisu Kenzō Tangeentzat egin zuen lan. Hasieran, arkitektura metabolistaren eragina jaso zuen; geometria biomorfikoak erabiliz mega-egiturak proposatzen ditu arkitektura horrek. Bere nabarmenetako lana Sant Jordi pabiloia da, 1992ko Bartzelonako Olinpiar Jokoetarako diseinatua.

Montserrat Ribas Barba

Arata Isozakik egindako diseinuaren arabera



Bartzelonako Palau Sant Jordiren I-H luzetarako ebaketa, bobeda formakoa

1989-1992. Grafitoa paperean

Kirol jauregiaren erdialdeko eremu izugarria estaltzeko, Arata Isozakik sare espazial bat diseinatu zuen, 136 metroko luzera eta 110 metroko zabalera duen bobeda dituen. 1989an haren estudioak formatu handiko hainbat marrazki Montserrat Ribas Barba arkitektoari eskatu zizkion. Denbora ezagatik eta ebaketak eskatutako lan eskergaren ondorioz, Ribasek ezin izan zuen marrazkia osatu. Bertan hauteman daitezke bai egituraren diseinua, baita egilearen trebetasuna ere. Horrek, hala ere, kalitate artistiko nabarmeneko marrazki hau sortzeko prozesua miresteko aukera ematen du.

Juan Martínez Apeztegia; Natxo Odriozola



Ortz sistema, Orona/Lanik


1990

Ortz sistemarekin eraiki zen Palau Sant Jordi; Lanik enpresaren patenteaz, eta Orona Egiturak ekoiztuta. Korapiloek eta barrek osatzen dut sistema. Hainbat norantzako dituzten barrek bat egiten dute korapiloarekin, pieza esferikoarekin. Barrak altzairuzko profil tubularrak dira. Mihiztatzeko, hari bikoitza erabiltzen da, bi estualdi egiteko aukera ematen duena: esferakoa hariarekin eta hariarena barrarekin. Mekanismo horrek estutzearen mantentze-lana egiten laguntzen du eta bibrazioekin lotura moteldu dadin saihesten du ere. Sistema axial oso zurruna eta trakzioan zein konpresioan oso antzeko portaera duen konponbidea eskaintzen du.

Adolfo Schlosser

1939-2004

Leitersdorfen (Austria) jaioa, Schlosser XX. mendeko azken laurdeneko artista garrantzitsua da. 1966an Espainian jarri zen bizitzen, eta arte plastikoen bilakaeran eta eraldaketan hartu zuen parte. Aita zeramikaria izanik, Schlosserrek Grazeko Eskolan pinturako prestakuntza jaso zuen, eta Vienako Arte Ederren Akademan, berriz, eskulturakoa. Hastapenetan, tapizak egin zituen. 1973tik aurrera eskulturaren eta pinturaren arteko erdibideko piezak sortzeko material plastikoak erabili zituen. 1975ean, landare-, mineral- eta ehun-elementuak erabiltzen hasi zen naturari gaindiko eskulturak osatzeko. Horietan, euskarriak, landare-egiturek, indar-lerroek eta tentsioak garrantzia hartzen dute.



Izenbururik gabea

1973. Metakrilatoa eta nailonezko haria

Metakrilato gardenez eta plastikozko hariz egina, Schlosserrek 1972 eta 1975 artean egindako obra geometrikoen seriekoa da lan hau. Metakrilatozko sei gurutze ditu, 45 gradutan biratuak eta elkarren artean gurutzatuak. Gurutzeen diagonalak erabiliz, egileak bakoitzean plastikozko bederatzai hari beltzekin sei erronbo marrazten ditu. Piezak figuren sakontasun desberdineko ikuspen ihesia sortzen du; egituraren ordena argi ikustea eragozten dute figurak, eta, azkenean, distiren eta harien moaré efektuaren eraginez egitura desagertzen da. Margolaritza eta eskulturaren arteko erdi-bidean dago lan hau.

2023an eskuratua



Izenbururik gabea

2002. Tinta txinatarra paperean

Schlosserrek matematika eta erritmoa darabiltza bere sorkuntzetan. Hemen, hiru puntako forma bi intentsitateko grisetan errepikatzen da, eta haien arteko argitasunen desberdintasunak bi sakonera sortzen ditu planoan. Irudiak gogora ekartzen dizkigu hostoak, landare-zurtoinen ebaketak eta animalien lorratzak. Marrazkiaren inperfekzioak eta gorabeherak ontzat emanda, errepikapenak eta ordenak tentsioa eratzen dute konposizio orokorrean. Bere itxurazko sinpletasunean, marrazkiari sofistikazio estetiko landua dario.

Marisol Rodríguez-Bobito Abascal eta Elisabet Schlosser Rodríguez-Bobitoren dohaintza 2023an

BBKateak

BBKateak erakusketa-proposamenaren helburua da bildumari narratiba berriak ematea, museoaren handitze proiektuko lanek iraun bitartean. Aldizka eguneratuko den aurkezpen-programa dinamiko baten bitartez, eraikin zaharreko areto bakoitzak bi artistaren eta haien lanen espero gabeko aurrez aurreko bat erakutsiko digute; denboran edo/eta jatorri kultural edo geografikoan urrunekoak izan daitezkeen izenak izango dira; horrela, arteari buruzko ikuspegi eraldatzailea eta eraikitzen ari dena iradokiko da. Modu horretan, museoaren metamorfosia islatuko da etengabe aldatzen ari den bilduma batean.

Programa *Hamahiru Centaurusera* lanak abiaraziko du; Sergio Prego artistaren eskultura-proiektua da, aretoak hustetik sortua.